

<b>NEIKER</b> <small>MEMBER OF BASQUE RESEARCH &amp; TECHNOLOGY ALLIANCE</small>	<b>JARRAIBIDE TEKNIKOA</b>	IT/G/N-014 Edizioa: 3 Or.: 1 / 8
<b>ZERBITZU ANALITIKO ESPEZIALIZATUAK EMATEKO BALDINTZA OROKORRAK</b>		<b>Onarpena: 20/07/02</b>



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

EKONOMIAREN GARAPEN  
ETA AZPIEGITURA SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO  
ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS


**Agiri honen kopia kontrolatu bakarra euskarri informatikoan dago eta Intranetean eskuratu daiteke. Agiria inprimatu ondoren kontrolatu gabeko kopia bihurtzen da.**

Agiri honen jabea NEIKER da eta izaera konfidentziala du; ondorioz, ezingo da kopian, inola ere ez, osorik edo partzialki, Zuzendaritzaren baimen idatzi eta berariazkorik gabe.

Egilea: SAN laborategiko burua    Izena: Gorka Aduriz Data: 20/07/02	Honek onartua: Z. nagusia    Izena: Leire Barañano Data: 20/07/02
--	---

**ALDAKETEN KONTROLA**

<b>Edizioa</b>	<b>Kapitulua</b>	<b>Zergatia</b>	<b>Data</b>
3	Denak	Formatua eta logoak	20/07/02
2	13 Eranskinak	Helbide elektronikoaren aldaketa Pribatutasun politika	20/02/03
1	Denak	Prozeduraren hasierako edizioa	19/06/06

 <p>MEMBER OF BASQUE RESEARCH &amp; TECHNOLOGY ALLIANCE</p>	<h2>JARRAIBIDE TEKNIKOA</h2>	IT/G/N-014 Edizioa: 3 Or.: 3 / 8
<b>ZERBITZU ANALITIKO ESPEZIALIZATUAK EMATEKO BALDINTZA OROKORRAK</b>		<b>Onarpena: 20/07/02</b>

### 1. XEDEA

NEIKER laborategien bezeroei zerbitzu analitiko espezializatuak emateko baldintza orokorren deskripzioa.

### 2. ERREFERENTZIAKO DOKUMENTAZIOA

PGC/EN-01 Laginen eta saiakuntzen kudeaketa  
IT/L/S-018 Animalia Osasuneko laborategietara laginak bidaltzeko jarraibideak.  
IT/L/S-013 Landare Osasuneko laborategira laginak bidaltzeko jarraibideak.  
IT/L/A-004 Natur Baliabideen Kontserbazio laborategira laginak bidaltzeko jarraibideak.  
PGC/EN-05 Txostenak egitea

### 3. ALDERDI OROKORRAK

Ondoren xehatzen diren baldintza orokorrak NEIKERen laborategiek ematen dituzten zerbitzu analitiko espezializatu guztiei aplikatuko zaizkie. NEIKERek eskaria onartzeak berekin dakar bezeroak osoki ezagutu eta onartzea baldintza orokorrak.

### 4. ZERBITZU ESKAERA

Zerbitzu eskaerak (eskaintzak: ikus eranskinak) eta laginak bidaltzeko inprimaki guztiak bezeroak sinatuta egongo dira; bertan, bezeroak bere izena edo ordezkatzan duen pertsonaren izena adieraziko du.

### 5. LAGINAK JASOTZEA

Bezeroaren erantzukizuna da laginak baldintza optimoetan bidaltzea laborategira (kontserbazioa, kantitatea, bilgarria), egokien iruditzen zaion bitartekoa erabiliz. Laginak ez badaude analisirako egoera bikainean, bezeroari hala jakinaraziko zaio, eta laginok deuseztatu egin ahal izango dira. Garraio gastuak bezeroaren kontura izango dira.


Laginen bidalketa guztiekin batera dagokion inprimakia joango da behar bezala beteta ([www.neiker.eus](http://www.neiker.eus)), edo eskaintzaren zenbakiaren erreferentzia eramango dute, halakorik badago.

Laginak erregistratzeko gutxieneko datuak dagokion inprimakian zehaztuta egongo dira. Oro har, honako hauek sartuko dira:

- bidaltzailea (izen soziala, helbidea, emaila eta IFK)
- laginaren identifikazioa
- egin beharreko determinazioak
- bidaltzailearen sinadura

Entregatzeko beste modurik adosten ez bada, NEIKERen bi egoitzetako batean hartuko dira laginak, jendaurreko orduetan:

NEIKER-Derio  
Bizkaiko Parke Teknologikoa, 812.  
Berreaga kalea, 1  
48160 Derio (Bizkaia)

 <small>MEMBER OF BASQUE RESEARCH &amp; TECHNOLOGY ALLIANCE</small>	<b>JARRAIBIDE TEKNIKOA</b>	IT/G/N-014 Edizioa: 3 Or.: 4 / 8
<b>ZERBITZU ANALITIKO ESPEZIALIZATUAK EMATEKO BALDINTZA OROKORRAK</b>		<b>Onarpena: 20/07/02</b>

NEIKER-Arkauti  
Nekazaritzako Elikagaien Kanpusa  
N-104; 355. km  
01192 Arkauti (Araba)

## 6. ANALISIAK EGITEA

NEIKERek konpromisoa hartzen du eskatutako zerbitzu analitikoak egiteko, behin eskaintza edo eskaria onartu eta gero eta eskaintzan edo eskarian bertan nahiz zerbitzuak emateko baldintza orokorretan zehazten den eran, edo bezeroarekin bereziki zehazten den eran. Eskaintzan, NEIKERek informazioa emango du eskatutako determinazioen ezaugarri teknikoengatik inguruan, indarrean den tarifaren inguruan eta erantzun denboraren inguruan. NEIKERek hasieran adostutako metodo analitikoak ez beste batzuk erabili ahal izango ditu, baldin eta hala eginez bezeroaren eskakizunak betetzen badira.

## 7. EMAITZEN TXOSTENA

Eskatutako determinazioetan eskuratutako emaitzen gaineko txostena egingo du NEIKERek. Emaitza horiek soil-soilik analizatutako laginari egingo diote erreferentzia. NEIKERek bezeroak emandako helbidera bidaliko du saiakuntzari buruzko txostena, e-mail bidez eta PDF formatuan. Hala eskatzen duten bezeroek posta bidez jasoko dute txostena. Dagoeneko egina dagoen txosten batean bezeroak emandako daturen bat aldatu behar bada eta NEIKERek ez badu zerikusirik aldaketa horren zergatiarekin, aldatutako txostenari kostu gehigarria erantsiko zaio.

## 8. FAKTURAZIOA ETA ORDAINKETA

Bezeroak NEIKERi ordainduko dizkio eskatutako analisiak. Aurrez itundu gabeko gastu gehigarriak -esaterako, bezeroak ez ordaindu izanak dakartzan banku gastuak- bezeroaren kontura izango dira. Bezeroaren eskariz lagin bat berriz analizatu ondoren emaitza berdin-berdina bada, zenbateko berbera fakturatuko da.


## 9. BEZEROAREKIKO KOMUNIKAZIOAK

Aldeen arteko komunikazioak, ahal dela, posta elektronikoz egingo dira eta zehaztutako helbideetara bidaliko dira. Edozein alde helbidea aldatzen badu, aldaketa hori jakinarazi egingo da.

## 10. KONFIDENTZIALTASUNA

NEIKERek beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu interes gatazka oro ekiditeko. Gainera, adostutako saiakuntzak inpartzialtasunaren, konfidentzialtasunaren eta erantzukizunaren printzipioen arabera egingo ditu.

NEIKERek erabateko konfidentzialtasunari eutsiko dio eskuratutako emaitzei eta bezeroak emandako informazioari dagokienez, tartean kontrakoa adierazten duen legeren bat ez badago behintzat (ad., derrigorrez aitortu beharreko gaixotasunak).

 <small>MEMBER OF BASQUE RESEARCH &amp; TECHNOLOGY ALLIANCE</small>	<h2>JARRAIBIDE TEKNIKOA</h2>	IT/G/N-014 Edizioa: 3 Or.: 5 / 8
<b>ZERBITZU ANALITIKO ESPEZIALIZATUAK EMATEKO BALDINTZA OROKORRAK</b>		<b>Onarpena: 20/07/02</b>

NEIKERek konpromisoa hartzen du bezeroak emandako informazioari sekretupean eusteko, eta zentzuzko neurriak abiaraziko ditu itundutako konpromisoak bete egiten direla ziurtatzeko. Eraitzen txostena bezeroarena izango da. Txostena osoki hedatu beharko da, eta ezin izango da partzialki erreproduzitu NEIKERen alde aurreko idatzizko baimena eduki ezean. Eraitzen txostena bezeroari edo hark izendatutako pertsonari baino ez zaio entregatuko.

Bezeroak baimena ematen badio NEIKERi laginak eta eskuratutako emaitzak ikerlanetan eta metodoak baliozkotzeko azterlanetan modu anonimoan erabiltzeko, baimen hori jasota egon beharko da eskaintzan edo laginak bidaltzeko inprimakian.

### 11. ERANTZUKIZUN ERATORRIAK

NEIKERek ez du inolako erantzukizunik bere gain hartuko ez bezeroak egiten dituen egintzen inguruan (laginketak, eskatutako determinazioak...) ez informazio urri eta desegoki baten ondoriozkoen inguruan. Kontratuko baldintzen edozein urraketaren aurrean NEIKERek bezeroarekiko duen erantzukizuna zerbitzua errepikatzaera edo bezeroari dagokion zenbatekoa bueltatzera mugatzen da. NEIKERek ez du bere erantzukizunpean hartuko zerbitzua ematearen ondoriozko zeharkako kalterik.

### 12. LANAK GELDIARAZTEA


NEIKERek eskubidea izango du analisiak geldiarazteko, baldin eta tartean arrazoi hauetakoren bat badago:

- Laginaren egoera txarra edo kantitate txikiegia
- Ez ordaintzea
- Ekipamenduen matxurak eta ezinbesteko kasuak

Halakoak berehalaxe jakinaraziko zaizkio bezeroari. Geldiaraztea ekarri zuen egoera normalizatutakoan, berriz ere ekingo zaie analisisiei.

### 13. DATU PERTSONALEN BABESA


<b>Datu pertsonalak babesteari buruzko oinarritzko informazioa</b>	
Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak (DBEO) tratatuko diren datu pertsonalen inguruan diotenari jarraituz, zera jakinarazten zaio interesdunari:	
<b>Arduraduna</b>	Joaquin Salazar, NEIKER, Nekazaritza Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea, SA-ko Baliabideetako Zuzendaria.
<b>Xedeak</b>	Zerbitzu analitikoaren prestazioa kudeatzea. Jarduera egiteko behar diren harreman eta komunikazioak izatea; NEIKERen jarduera, ekitaldi, produktu edota zerbitzuei buruzko informazioa bidaltzea; bezeroekin, balizko bezeroekin, hornitzaileekin eta kolaboratzaileekin harremanak izatea. NEIKERek, gainera, datu pertsonalen tratamendua egiten du enpresei edo pertsona pribatu eta publikoei ematen dizkien zerbitzuen arabera (esaterako, laborategiko saiakuntza eta probetan). Gure jarduera eta zerbitzuei buruzko informaziorik jaso nahi ez

 <p>MEMBER OF BASQUE RESEARCH &amp; TECHNOLOGY ALLIANCE</p>	<h2>JARRAIBIDE TEKNIKOA</h2>	IT/G/N-014 Edizioa: 3 Or.: 6 / 8
<b>ZERBITZU ANALITIKO ESPEZIALIZATUAK EMATEKO BALDINTZA OROKORRAK</b>		<b>Onarpena: 20/07/02</b>

	baduzu, e-mail bat bidal dezakezu, hori adieraziz, helbide honetara: <a href="mailto:dbo-dpd@neiker.eus">dbo-dpd@neiker.eus</a>
<b>Legitimazioa</b>	Kontratu harremana. NEIKERen interes legitimoa, lege obligazioak betez.
<b>Komunikazioak eta lagapenak</b>	Datu pertsonalak ez zaizkie hirugarrenei jakinaraziko, lege zehaztutako kasuetan eta NEIKERek bere ekitaldi eta jarduerak hedatzeko duen interes legitimoan oinarritzen denean izan ezik (webgune korporatiboaren eta sare sozialen bitartez). Jarduera eta ekitaldietako zure parte hartze datuak gure webgunean eta sare sozialetan agertzerik nahi ez baduzu, e-mail bat bidal dezakezu hori adieraziz helbide honetara: <a href="mailto:dbo-dpd@neiker.eus">dbo-dpd@neiker.eus</a>
<b>Nazioarteko transferentziak</b>	Ez dira egingo.
<b>Eskubideak</b>	Datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko eskubideak, baita arauetan jasotako beste eskubide batzuk ere, informazio gehigarri eta osoan xehatzen da gure webgunean jasotzen den pribatutasun politikan.

#### 14. GATAZKAK EBAZTEA

Aldeen arteko kontratu harremana Espainiako legeei lotua dago. Edozein auzi ebazteko, aldeek BILBO hiriko epaitegi eta auzitegiei men egingo diete.

 <p>MEMBER OF BASQUE RESEARCH &amp; TECHNOLOGY ALLIANCE</p>	<h1>JARRAIBIDE TEKNIKOA</h1>	<p>IT/G/N-014 Edizioa: 3 Or.: 7 / 8</p>
<p><b>ZERBITZU ANALITIKO ESPEZIALIZATUAK EMATEKO BALDINTZA OROKORRAK</b></p>		<p><b>Onarpena: 20/07/02</b></p>

## 15. ERANSKINAK

1. eranskina: Derioko Laborategiaren eskaintza txantiloia



Bizkaiko Parke Teknologikoa  
Berreaga kalea, 1  
48160 Derio (Bizkaia)  
(+34) 944 034 300  
[www.neiker.eus/info@neiker.eus](http://www.neiker.eus/info@neiker.eus)

Razón Social: NEIKER, Instituto Vasco de Investigación y Desarrollo Agrario, S.A. Unipersonal. Inscrita en el Registro Mercantil de Bizkaia con fecha 26/11/84 • Tomo 1.437 • Libro 966 • Sección 3ª de Sociedades • Folio 72 • Hoja 9.205 • CIF A48167902

**Laborategi eskaintza: OF - Urtea - Laborategia -Zk.  
korrelatiboa**

**XEDEA**

|

KONFIDENTZIAL

<p><b>NEIKERekin harremanetan jartzeko:</b></p>	<p><b>Bezerearekin harremanetan jartzeko:</b></p>
<p>IFK: A4816790Z</p>	<p>IFK:</p>
<p>Izena:</p>	<p>Izena:</p>
<p>E-maila:</p>	<p>E-maila:</p>
<p>Tel.:</p>	<p>Tel.:</p>

<b>NEIKER</b> <small>MEMBER OF BASQUE RESEARCH &amp; TECHNOLOGY ALLIANCE</small>	<b>JARRAIBIDE TEKNIKOA</b>	IT/G/N-014 Edizioa: 3 Or.: 8 / 8
<b>ZERBITZU ANALITIKO ESPEZIALIZATUAK EMATEKO BALDINTZA OROKORRAK</b>		<b>Onarpena: 20/07/02</b>

2. eranskina: Arkautiko Laborategiaren eskaintza txantiloia Ed. 03



Campus Agroalimentario de Arkaute  
N-104, km. 355 01192 Arkaute  
(Araba)  
(+34) 945 121 313  
www.neiker.eus/info@neiker.eus

Razón Social: NEIKER, Instituto Vasco de Investigación y Desarrollo Agrario, S.A. Unipersonal.  
Inscrita en el Registro Mercantil de Bizkaia con fecha 26/11/84 • Tomo 1.437 • Libro 966 • Sección 3ª de Sociedades • Folio 72 • Hoja 9.206 • CIF A48167902

**Laborategi eskaintza: OF - Urtea - Laborategia -Zk. korrelatiboa**

**XEDEA**

**KONFIDENTZIALA**

<b>NEIKERekin harremanetan jartzeko:</b>	<b>Bezeroarekin harremanetan jartzeko:</b>
IFK: A48167902	IFK:
Izena:	Izena:
E-maila:	E-maila:
Tel.:	Tel.: